

DILEMA MORALA

Egoera honetan aurkitzen naiz, DBH3ko irakaslea naiz, eta ohikoa den bezala izaera ezberdineko ikasleak ditut, badaude isilago eta lotsatiagoak direnak eta era berean badaude liderrago eta hiztunagoak direnak. Urtero bezala kurtsoan zehar hainbat istilu egon dira, bullying kasu baten susmoa ere badut. Gaur, nire ikasleetako baten gurasoekin bildu ondoren, haien semea transexuala dela jakinarazi didate, eta nire esku utzi dute publikoa egin ala ez erabakitzea.

Egoera honen aurrean bi aukera garbi daude; bat, gelakideei gaiari buruz hitz egin eta ikasleak bere transexualitatea publikoki eraman ahal izatea eta bi, ezer ez esatea eta bere segurtasuna bermatzea.

Gai hau lantzearekin batera hainbat balore azaleratzen dira, haien artean daude; berdintasuna, integritatea, enpatia, ausardia, askatasuna...

Esan bezala, bi aukera nagusi bereizten dira, lehenengoa gainontzekoei gaiaren berri eman eta gazte honek bere transexualitatea inongo ezkutatze beharrik gabe eramatea izango da. Oso argiak dira aukera honek dituen alde onak, gazte honek bere adineko gazte guztiak bezala bera nor den agerian eramatea posible izango du. Ez du ezer ezkutatatu beharko eta askatasun minimo bat behintzat izango du. Baina zori txarrez alde txarrak ere baditu, gaur egun ere harresi sozial handia jasango du pertsona honek, bere gelakideekiko baztertzea esaterako. Oraindik ere ez baitago "ongi ikusia" gizartearen begietan, hau da, gure begietan, generoa eta sexua ez doazela batera. Haurrak garenetik genitalak pertsonaren generoa zehazten duten atalak direla erakutsi digute baina ez al da genitalak eta generoa haien artean guztiz independenteak direla jakiteko garaia? Dirudienez hainbat pertsona eta gaztek ez dute horrela ikusten eta hori da arazo guztietatik handiena.

Beste aukera berriz, gaiaren berri ez ematea eta ezkutuan eramatea izango litzateke. Gaztearen segurtasuna bermatze arren... Ikusten dudana alde on bakarra berarekiko gainontzeko ikasleen jarrera aldatuko ez dela jakitea da, hau da, transexuala izate hutsagatik sufritu beharko lukeen guztia sufrituko ez lukeela, klasean gutxienez... Baina halere, askoz ere handiagoa da nire ustez aukera honen alde txarra. Guztiok jaiotze puntutik gure generoa inongo arazo eta beldur gabe zein den esaterakoan dugun askatasun hori kentzen diogu. Horrez gain, egunerokotasunean berea ez den izen, genero..., batekin zuzenduko da jendea berarengana eta ez dirudi oso eroso.

Hasteko tristea iruditzen zait zure generoa publikoa egin edo ez dilema bat izatea. Gizaki izate hutsagatik zure generoa, orientazio sexuala, edo zu egiten zaituen edozein ezaugarri inongo oztoporik gabe esate ezinak esperantza galduarazten dit. Gizarte oso aurreratu bat dugula suposatzen da, tolerantzia handikoa eta askatasun minimo bat bermatzen duena baina egia esan ez dut horrela ikusten. Klasean esaterako egunero entzuten ditut, komentario transfobo, homofobo, matxista, arrazistak... eta hori entzunda ondo goazela pentsatu behar al dut?

Guzti honek zer pentsatua ematen dit, nik "estereotipo guztiak betetzen dituen neska" izanik ni neu izateko inseguritatea badut, nolakoa izango da gizarteak markaturiko mugetatik kanpo bizi den pertsonaren bizitza? Zenbatekoa izango da jasaten duen presio soziala? Erantzuna lehenengo pertsonan bizitu gabe imagina ezina dela esango nuke.

Esandako guztiarekin hartuko nuken aukera haxe da, lehenik eta behin, gaztearekin hitz egitea. Bera baita bere buruaren jabe eta erabakia hartu behar duen pertsona baina argi utziko nioke nire iritzia. Berak transexual etiketa baino lehen pertsona etiketa duela eta guztiok bezalaxe nor den argi uzteko aukera duela, gizarteak jar ditzala nahi bezain beste oztopo zuk zu izaten jarraituko duzula. Bera bezalaxe milaka gazte daudela eta geroz eta altuago esan geroz eta gehiago entzungo duela munduak gu genero bat baina gehiago garela eta pertsonaren genitalak generoarekin lotzeaz uzten dutenean izango garela neurri batean aske. Honekin esan nahi dudana da, gainontzekoei bere transexualitatearen berri ematea gomendatuko niokela, bai beraren ongizateagatik bai bere egoera berean dauden eta egongo diren pertsona guztien ongizate eta etorkizunagatik. "aske izatea ez baita zure kateak austea soilik, gainontzekoak errespetatzen eta gainontzekoen askatasuna hobetzen bizitzea baizik"

(Nelson Mandela).